

PARTE-HARTZEA EUROPAN



Egilea:



Diruz laguntzen du:



PARTE-HARTZEA EUROPAN

Idazketa eta edizioa:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)



Diseinua eta maketazioa:

Miriam Isasmendi

Inprimatzea:

Erreka Multimedia s.coop.


Itzulpena:

Tisa



AURKIBIDEA

1	SARRERA	5
2	GAZTEEN PARTE-HARTZE SOZIALA SUSTATZEA	7
3	INSTITUZIOAK ETA PARTE-HARTZEA	9
4	PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO KONTUAN HARTU BEHAR DIREN FAKTOREAK	11
5	PARTE-HARTZEAREN BARRUAN JOERA BERRIAK	15
5.1	Parte-hartzea epe luzerako estrategia batean sustatzeko joera berriak	16
5.2	Parte-hartzea ekitaldi konkretuetan eta epe laburreko estrategian sustatzeko joera berriak.	17
6	EUROPAKO ESPERIENTZIAK DESBERDINAK GAZTEEN PARTE- HARTZEAREN ALORREAN	21
7	BIBLIOGRAFIA	29



Parte-hartzea Europan txostena Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren arteko lankidetzaren emaitza da.

Lan hau Euskadiko gazteen parte-hartzea sustatzeko tresna eta esperientziak eskaintzeko asmoarekin egin da. Gazteen parte-hartzea modu zuzenean sustatzen duten ekimen berritzaileak martxan jartzen laguntzeko baliabide teoriko-praktikoa izateko erronka bere egiten du. Egungo gazteriaren ezaugarriei buruzko hausnarketa bultzatu nahi du, gazte munduari buruzko zenbait baieztapen matizatu eta prozesu parte-hartzaileak abian jartzeari buruz kontsiderazio batzuk gehitu.

Eskuliburu honek gazteen parte-hartzea aztertu nahi du, etengabe aldatzen ari den mundu honen testuinguruan. EGK-k sakonago aztertu nahi ditu gazteen parte-hartzea sustatzeko sortzen ari diren forma berritzaileak, parte-hartzea gizarte-garapenaren ekinbide bihurtuz. *Parte-hartzea Europan* txostenak pista erabilgarri batzuk aurkeztu nahi ditu, hori guztia ikuspegi eguneratu batez eta Europari begiratuz lantzeko.

Dokumentua zenbait ataletan dago egituratuta. Atal horiek lagungarriak izango dira ulertzeko zer esan nahi duen gaur egun gazte izateak eta zer gai aztertu beharko diren parte-hartzea oraingo testuinguruan sustatzerakoan eta lantzerakoan.

Euskadin badira hainbat dinamika edo prozesu gazteen parte-hartzea bultzatzeko. Horietan ez dute soilik erakundeek edo gazteak parte hartzen, Euskadiko instituzioetan lanean diharduen pertsonal teknikoak eta politikoak ere parte hartzen du. Hain zuzen ere, horregatik jarraitzen du EGK-k parte-hartzea sustatzeko formak sostengatzen eta haien alde egiten.

Eskuliburu honetan Euskadiko gazteria aktiboago, parte hartzaileago eta solidarioagoa lortzeko bidean lanean dihardutenen pertsonentzat adibide baliagarriak biltzen dira.



2

GAZTEEN PARTE-HARTZE SOZIALA SUSTATZEA

EGKtik gazteen parte-hartze soziala sustatzerakoan Europan dauden metodo eta esperientzia desberdinak aztertu dira. Ezinbestekoa da gazteen parte-hartzea erreklamatzeko eta praktikan jartzea, eta ez herritartasun eskubidearen ordezkartzatik soilik, baita egunerokotasunetik eta, hortaz, erabakiaren eraikuntzan ere. Prozesu horiek sortzeak esperientziak aldatzea, ereduak eztabaidatzea eta, batez ere, jarduerekin asmatzea eskatzen du. Azken batean, horrek suposatzen du aldaketak ezartzea gazteriak administrazioarekin eta honek gazteriarekin dituen harremanen joko arauetan.

Parte-hartzea Europan txostenak gazteek modu desberdinetan parte hartzeko aukera izan dezatela bilatzen du. Horretarako, lehenik eta behin parte-hartze sozialaren inguruan hausnartzea beharrezkoa da.

Bide honetan guztian, EGK-k lanean dihardu aliantzak eratzen hezkuntza-komunitate, instituzio eta erakunde sozialen artean, parte-hartzearen kultura gizartean txertatzen jarraitzeko helburuarekin. Lan hau beste urrats bat da norabide horretan. Horrekin batera, parte-hartze sozialaren kultura Euskadiko gazteen artean naturaltasunez garatzeko gobernu egokiena zein den hausnartzen jarraitzea beharrezkoa da.



3

INSTITUZIOAK ETA PARTE-HARTZEA

Sarreran adierazi den bezala, argitalpen honek gazteen parte-hartzearen alorrean Europan dauden forma berriak edo jardunbide egokiak eta administrazioek eta erakundeek parte-hartze hori sustatzerakoan jokatzen duten rola erakutsi nahi ditu. EGKren helburua oraingo esparru juridikoan gara daitezkeen ideiak mahai gainean jartzea da. Lanean jaso diren jarduera edo adibideek helburu argi bat aurkezten dute: gazteria komunitatean txertatzeko eta integratzeko bidea erraztea. Horren guztiaren asmoa da gazteak euren parte-hartzearen bitartez aldaketa sozialaren protagonista bihurtzea.

Europako instituzioetatik ezartzen den bezala, helburu bikoitz hori (integrazioa eta parte-hartzea) oinarritzat hartu behar da gazteriar zuzendutako edozein proiektu edo programa eraikitzerakoan. Europako hainbat gazte eta aditu kontsultatu ondoren, Europako Komunitateen Batzordeak ***Bultzada berri bat Europako gazteentzat (Europar Komunitateen Batzordea, 2001)*** liburu zuria argitaratu zuen.

Lan horretan europar kontinenteko politika publikoetan parte-hartzea sustatzea lehentasunezkoa zela adierazi zen. Harrezkero, instituzio bakoitzaren eginbeharra da parte-hartzea sustatzeari begira dauden forma desberdinak baloratzea eta baita hori gauzatzeko dituen baliabideak aztertzea ere. Instituzioek gauzak egiteko modu bat bere egiteak gazteen 'parte-hartzea' edo 'gazteen informazioa' bezalako kontzeptuek beste dimentsio bat hartzea bultzatu du. ***Bultzada berri bat Europako gazteentzat (Europako Komunitateen Batzordea, 2001)*** liburu zuria argitaratu izana lagungarria izan da parte-hartzea sustatzen duten proiektuak garatzeko, eta *Parte hartzea Europan* dokumentuak norabide horretatik jarraitu nahi du bere ekarpena eginez.



4

PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO KONTUAN HARTU BEHAR DIREN FAKTOREAK:

Komenigarria da *Herritarren parte-hartzeari eta Europar Batasunari buruzko EAEko gazteen iritziak* (Bilbao eta Trabada, 2011) eta EGK-k Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean egindako gazteen parte-hartze sozialari buruzko *Gazteak eta parte-hartze soziala Euskadin* (Bilbao, Corcuera, Longo eta Gonzalez, 2015) lanak aztertzea. Izan ere, bi lan horiek parte-hartzea sustatzerakoan kontuan hartu beharreko euskal gazteriaren hainbat faktore, iritzi eta ikusmolde islatzen dituzte.

Aurrez parte-hartze dinamiketan eragina izan dezaketen hainbat faktore kontuan izan behar direla aipatu da. Batzuetan, baina, dinamikak egituratzerakoan, antolatzaileen ekintza edo erabakiak berak izaten dira parte-hartzea oztopatu edo zaildu dezaketenak. Eudel-en *Nola egin kalitatezko partaidetza prozesua?* (Eudel, 2009) gidan, prozesu parte-hartzaile bakoitzak metodologia egoki bat izatearen garrantzia azpimarratzen da, kontuan hartuta zer gai jorratuko den eta zer-nolako testuingurutan lan egingo den. Halaber, prozesu parte-hartzaile bat diseinatzerakoan jarraitu behar diren zortzi funtsezko urrats identifikatzen dira.

4.1. Kontuan hartu beharreko 8 funtsezko urrats

1: Zergatik egin nahi dugu prozesu parte-hartzailea?



Lehenengo urratsa da prozesu parte-hartzailea abiatzera daramaten arrazoiak eraikitzea. Jorratu beharreko gaiaren arabera arrazoi horiek mota askotakoak izan daitezke: gazteriarengan eragin berezia izango duen jarduera publiko bat, gazte-eragile edo kolektiboen interesa pizten duen gai bat, zenbait erakunde inplikatzeko dituen proposamen herritar bat... Edonola ere, garrantzitsua da prozesu parte-hartzailea abiatzera daraman arrazoiak esplizitu izatea eta berau ekimena sustatzen duen instituzio publikoak edo kolektibo sozialak gidatzea modu argian. Prozesuaren funtsezko gainerako elementuak formulazio on baten oinarrian ezarriko dira.

2: Zertarako egiten dugu prozesu parte-hartzailea?



Prozesu parte-hartzailearen oinarria da goenean, beharrezkoa da haren plan-gintzarekin hastea, beraren helburuak edo helmugak zein diren zehaztuz. Helburuen eginkizuna zer egin behar den lehenestea eta inplikaturako pertsona guztientzat horizonte komun bat ezartzea da. Lortu beharreko helburuak ondo definitzea baliagarria da bilatutako helburuen eta horiek lortzeko metodoen arteko inkoherentziak ekiditeko.

3: Nortzuk parte hartuko dute prozesuan?



Prozesuan parte hartzera deitu nahi diren eragileak identifikatzeko unea da, izan udalerriko erakunde edo elkarte, ordezkari politiko, interes profesionaleko talde edo norbanako gisa jardun dezakeen edozein gazte. Kontua ez da gaiaren gaineko ezagutza espezializatua duten kolektiboak edo pertsonak soilik bilatzea, baizik eta gaiari buruzko interesa edo esperientzia duten pertsonak ere erakartzea.

4: Zer joko-arauekin?



Beharrezkoa da arauak argi azalduta egotea eta parte hartuko duten pertsonentzat ulergarriak izatea. Orain definitu behar dira, argi eta garbi:

- Prozesuaren muga teknikoak, eskumenen arlokoak, ekonomikoak eta/edo politikoak.
- Eztabaidatuko denaren edukia.
- Prozesuaren emaitzekin hartzen den konpromisoa, argi azalduz ea aholku-izaera ala izaera loteslea duten.

5: Nola gauzatzen da?



Lehen esan dugun bezala, ez dago prozesu parte-hartzaile guztietarako balio duen metodologia estandarrik. Prozesu bakoitzak berea beharko du, jorratu beharreko gaiaren arabera eta horren inguruan ezarritako helburuen arabera. Hala eta guztiz ere, prozesu parte-hartzaile guztiek hasiera bat eta amaiera bat izango dituzte, eta komenigarria da horiek planifikatzea.

6: Noiz gauzatu prozesua?

Denbora-tarteak eta erritmoak



Funtsezkoa da prozesu parte-hartzailearen erritmoak eta denbora-tarteak lan egingo duten eragileetara egokitzea. Eta hemen bi gauza eduki behar dira kontuan. Alde batetik, jardunaldiaren antolaketa, zeren ordutegi tekniko eta profesionalak ez baitira izaten gazteen ordutegi berdinak. Beste alde batetik, ziklo luzeak, hau da: erritmo politiko-administratiboak, aurrekontu-programazioek eta hauteskunde-zikloek erabat baldintzatutakoak; herritarren erritmoak, jardueren programazioak baldintzatuta eta, sarritan, esku-hartze instituzional hauen eraginez gaindituta agertzen direlarik.

7: Non egingo da? Espazioak eta lekuak



Prozesu parte-hartzailearen saio presentzialak egiteko erabiliko diren lekuen (zentroa, eraikina, ekipamendua...) eta espazio fisikoaren (aretoak edo gelak) aukeraketak berebiziko garrantzia du parte-hartzaileen erantzun eta dinamikarako.


Lan-saioa garatzeko erabiliko diren espazioei dagokienez, garrantzitsua da planifikatutako dinamikak baldintza optimoetan garatzeko aukerak eskaintzea, lurzoru egokia eta pertsona guztientzako irisgarria izan beharko duelarik.

8: Zer baliabiderekin egingo da?



Prozesu parte-hartzaile bat ondo garatzeko beharrezkoak diren baliabideak definitzerakoan, gutxienez ondoren aipatutako puntuak hartu behar dira kontuan:

- Pertsonala
- Materialak
- Informazioaren teknologiak
- Aurrekontu ekonomikoa
- Denbora





5

PARTE-HARTZEAREN JOERA BERRIAK:

Herritarren parte-hartzeari eta Europar Batasunari buruzko EAEko gazteen iritzia (Bilbao eta Trabada, 2011) lanean argi geratzen dira parte hartzeari dagokionez Europar Batasuneko herrialdeen artean dauden desberdintasunak. Ez herrialdearen arabera soilik, udalerrien arabera ere, neurri handi batean, esperientzien kopurua eta irismena pertsonen borondatearen eta leku bakoitzeko ezaugarri sozial, kultural eta gainerako faktoreen mende baitaude. Nolanahi ere, esan behar da joera nagusia esperientzia parte-hartzaileen hazkundera dela, Euskadin bezala.

Ikusi da gazteak egon direla bereziki urrunduta tokiko kudeaketa publikoaren eremutik; horregatik, Europako esperientzia askok herritarren sektore horretara zuzendutako ekintza espezifikoak garatu dituzte.

Garbi dago, instituzio demokratikoentzat oso premiazkoa da bide egokiak aurkitzea herritarrekin komunikatzeko eta haiekin elkarreraginean aritzeko. Helburua da aukera eraginkorrak eskaintzea toki, eskualde eta nazio mailako politiketan eragina izateko. EGKrentzat beharrezkoa da gazteriaren interesa pizten duten prozesu berritzaileak abiatzen saiatzea.

Europar zenbait metodologia edo prozesu parte-hartzaile berritzaile abiatu dira gazteen parte-hartzea toki, eskualde edo estatu mailan hobetzeko. Gehien erabili direnetako batzuk *La participación ciudadana en grandes ciudades* (Varela, García, Stoker, Herbert eta Romero, 2006) liburuan aipatzen dira.

5.1 Parte-hartzearen joera berriak parte-hartzea epe luzerako estrategia batean sustatzeko

5.1.1 Gazteei zuzendutako aurrekontu parte-hartzaileak

Demokrazia parte-hartzailearen Aldeko Udalerrien webgunean ondo zehazten den moduan, aurrekontu parte-hartzaileen historia Brasilen (Porto Alegre) hasi zen, 80eko hamarkadaren amaieran. Lehenengo esperientzia handi horrek Hego Amerikan bultzatu zuen prozesu hori Nazio Batuen Erakundea edo Munduko Bankua bezalako nazioarteko instituzioen aitortza lortzeraino.

Herritarrek udal edo eskualdeetako aurrekontuen egikaritzean parte hartzeko tresna bat da. Proiektu horiek zenbait etapa dituzte: proposamenen formulazioa; ebaluazio tekniko eta finantzarioa; aurre-aukeraketa eta azkeneko aukeraketa. Orokorrean, inbertsioen kapituluaz eztabaidatzen da, baina badira aurrekontu publikoaren beste alderdi batzuetara ere heltzen diren esperientziak.

Porto Alegreko ereduari jarraituz, esperientzien kopurua etengabe hazi da Euskadin azken urte hauean, eta euskal instituzioetan aski hedatutako praktika bat da gaur egun. Hori horrela izanik, eta *Los presu-puestos participativos y las políticas de juventud: Un estudio de caso sobre la cultura de la participación en España* (Comas, 2009) lanak adierazten duen moduan, oraindik ere bide luzea dago egiteko, bai Europa mailan eta bai Euskadin, gazteei zuzendutako aurrekontu parte-hartzaileei dagokienez. Horregatik, EGKtik Italiako esperientzia aitzindarietako bat aztertu nahi izan da, oso emaitza positiboak eman zituelako eta adibidetzat har daitekeelako etorkizunean jarduteko.

5.1.2 Plan komunitarioak

Komunitate jakin baten garapena parte-hartze aktiboaren bitartez bultzatu nahi duten tresnak dira. Ingurune konkretu bat (hiria, herria, auzoa, barrutia...) hobetzera zuzendutako tresna parte-hartzaileak izateko bokazioarekin sortzen diren espazio edo prozedurak dira, pertsonak aldaketaren protagonistak bihurtuz. Badago aukera helburu berbera duten baina gazteriarentzat soilik diren espazioak sortzeko.

5.1.3 Parte-hartzea sustatzen duten proiektu hezitzaileak

Udalerri edo eskualde baten hezkuntza-garapenerako ekintzak epe ertain eta luzerako planifikazioa bilatzen duten proiektuak dira. Ikasleak ahalduztzeko parte-hartze prozesu edo dinamikak planteatzen dituzte. Asmoa da parte-hartzearen kultura ikasgeletatik sustatzea, ikasleek euren inguruneko garapen sozial eta komunitarioan parte hartu dezaten etorkizunean. Alor horretan, Poitou-Charentes eskualde frantziarreko esperientzia ekarri nahi izan da.

5.1.4 Degradatutako edo abandonatutako espazioak gazteriarentzat berreskuratzea parte-hartzearen bidez

Asmoa hutsik edo degradatuta dagoen espazio bat gazteen edo gazte-erakundeen parte-hartzearen bitartez berreskuratzea da. Helburua berreskuratutako espazioa gazteriak jasaten dituen arazoen inguruan lan egiteko topagune izatea da. Asmoa berdina izaten da beti: parte-hartzetik abiatuta irtenbideak bilatzea eta ondo pasatzea. Lan honetan aztertu dira Rigako GKE Etxearen esperientzia eta Danimarkako Aarhus hiriko Kultura bitartekari gisa proiektua.

5.1.5 Garapenerako Lankidetzari buruzko tokiko edo eskualdeko politikak

Hirugarren munduko sektore baztertuei zuzendutako nazioarteko komunikaziorako toki edo eskualde mailan garatutako politikak dira. Politika horiek garapenerako lankidetzan gazteriaren presentzia funtsezkoa denaren konbentzimendutik abiatzen dira. Izan ere, horren inguruko ardura ez da gobernu-instantziena edo estatu arteko instantziena bakarrik. **Euskadiko Gazteok Lankidetzan** moduko lankidetzaproiektuek erakusten dute garapenerako lankidetzaren sustatzea tresna erabilgarria dela euskal gazteria parte-hartze sozialaren giroan sartzeko.



5.2 Joera parte-hartzaile berriak ekitaldi konkretuetan eta epe laburrerako estrategia bidez parte-hartzea sustatzeko

Parte-hartzea ekitaldi konkretuetan eta epe laburre-rako estrategia batean sustatzerakoan, denbora fak-toreak konfiantzazko loturak sortzea eragozten du. Horregatik, gazteak erakartzeko xedez, metodologia parte-hartzaileago eta berritzaileagoetan oinarritu-tako ekitaldiak antolatzen dira, metodo konbentzio-nalak alde batera utzita.

5.2.1 World Café

World Café metodologia, beste ideia handi asko bezala, kasualitatez garatu zuten Juanita Brown eta David Isaacs amerikar aholkulariek, 1995eko urtarilean.

World Caféaren metodoa prozesu sinple bat da. Aitzitik, parte-hartzaile bakoitzari onurarik handiena eskaintzen dio. Gizabanako bakoitzak baduela ideia handi bat sortzeko ahalmena eta ikasteko modu indartsuena ideia hori besteekin giro atseginean konpartitzea dela dira haren filosofiaren oinarriak.



World Caféaren alderdi esanguratsuenetako bat mahai batetik bestera joateko eskaintzen duen aukera da. Horrek ideia-truke eraikigarriak sortzen ditu eta, hortaz, parte-hartzaileen ezagutza zabaltzen eta azkeneko emaitza aberasten du.

Metodologia:

- Kafetegi moduko giro bat sortzen da, eta 4 edo 5 pertsonentzako mahaiak prestatzen dira. Parte-hartzaileei txartelak, markagailuak eta eztabaida librearen sustatu dezaketen baliabideak ematen zaizkie, baita aztergai egongo diren gaien buruzko dokumentazioa ere.
- 15 edo 30 minutuko hiru elkarriketa-txanda egiten dira, eta horien amaieran konklusioak idazten dira txarteletan edo errotafolio-orrietan.
- Mahai bakoitzean anfitrioi bat izendatzen da, eta bera da mahaiaren txostena gordetzeaz arduratutako pertsona. Hurrengo txanda hastekoan, gainerakoak beste edozein mahaitara mugituko dira.
- Anfitrioiek oso rol garrantzitsua jokatzen dute, elkarriketen txanda elkarrekin lotzeko arduradunak baitira. Mahaiak aldatzen direnak 'bidaiariak' deritzenak dira.
- Ziklo hau bukatzen denean, mahaiak berriro antolatzen dira, lehenengo txandaren ordena berean, eta denbora ematen zaie ondorioak azaltzen dituen aurkezpen labur bat prestatzeko.
- Ez da guztiz beharrezkoa talde bakoitzean adostasuna egotea. Adostasunik ez badago, taldearen ordezkariak eztabaidan agertutako alternatibak jasotzen ditu.
- Parte-hartzaile bakoitzaren ardura da amaierako saioaren aurkezpenean bere ideiak agertuko direla bermatzea.

Vigia-thinking aholkularitza enpresaren [webgunean](#) esperientziaren gaineko informazio gehiago topa daiteke.

5.2.2 Giza liburutegiak

Giza Liburutegia Stop the Violence GKEak Kopengahen hirian daniarrean 2000. urtean hasitako esperientzia bat da, Roskildekoko Jaialdiaren baitan sortua.

Esperientzia parte-hartzailea Dany Abergel, Asma Mouna, Christoffer Erichsen eta Ronni Abergelek hasi zuten, haien lagun batek labankada-eraso bat pairatu ostean (1993). Helburua diskriminazioa murriztera zuzendutako esperientzia parte-hartzaileak sortzea zen, horren bidez elkarriketa sustatzeko eta beste kultura batzuetako pertsonak ulertzen laguntzeko.

Giza Liburutegia beste baldintza batzuetan hitz egingo ez zuten pertsonen arteko elkarriketa sustatzeko tresna gisa plazaratzen da. Gizarte-kohesioa oztopatzen duten aurreiritzi eta estereotipoak apurtu nahi ditu, modu erraz batean.



Funtzionamendua oso erraza da: erabiltzaileak espazio batera sartzen dira eta 'aukeren' katalogoa kontsultatzen dute, baina liburuaren ordez kontatzeko esperientziak dituzten pertsonak aurkituko dituzte.

Aurrez aurre eseri ahal izango dira, ordu erdiz, entzuteko eta hitz egiteko. Bada beste aukera bat: denbora amaitu baino lehen altxatzea eta beste mahai batean esertzea, beste pertsona baten kontakizuna entzuteko.

Giza Liburutegia edozein prozesu edo proiekturen harira antola daiteke, edozein delarik proiektuaren tamaina. Giza Liburutegi bat bideratzeko beharrezkoa den baliabide nagusia denbora da. Ekitaldiak herrialde desberdinetan antolatu ahal izan dira, oso finantzaketa txikiarekin. Batzuk aipatzearren: Errumania, Islandia, Finlandia, Norvegia, Italia, Holanda, Eslovenia, Belgika, Portugal eta Australia.

EGKren aldetik, Portugalgo Valongo hirian buruturiko Giza Liburutegia txertatu da lan honetan.

Esperientziaren sortzaileek sorturiko **webgunean** informazio gehiago topatu daiteke.

5.2.3 Beer & Politics

Beer & Politics 2008an sortu zen Juan Víctor Izquierdo eta Xavier Peytibi bartzelonarren eskutik. **Beer & Politics** saioak gehien dakien jendearengandik gauza berriak ikasteko eratu ziren, baina baita hitzaldian eta beraren ostean sorturiko elkarrizketen bitartez harremanak sortzeko ere.



2010az geroztik komunikazio politikoari buruzko batzar edo ekitaldien harira horrelako topaketak egiten hasi ziren Bilbon eta, 2012az geroztik, munduko gainerako lekuetan.

Metodologia:

- Hizlari eta gai nagusi bat daude.
- Hizlariak 15 eta 40 minutu bitartez hitz egiten du.
- Elkarrizketa informal bat da, batzuetan tabernako mahai batean inguruan, hizlariarekin elkarreraginean aritzea ahalbidetzen duena.

- Behin amaituta, bildutako pertsonen artean solasean jarraitzea da ideia, giro lasaiago batean.
- Pertsonak dinamikan sartu daitezke nahi dutenean, baita irten ere.

Beer and politic-en **webgunean** informazio gehiago aurkitu daiteke

5.2.4 Sare sozialak

Komunikazio-prozesuak aldaketa nabaria izan du. Teknologia berrien bitartez gazteria hartzailea izatetik edukiak sortzera eta horiek sareetan elkarbanatzera igaro da.

Sare sozialen bitartez, gazteek proposamenak sortzen dituzte eta interesatzen zaizkien gaitan parte hartzen dute. Azken aldi honetan ikusi da sare sozialak baliagarriak izan direla erreibindikazio-proposamenak sustatu eta kaleratzeko.

EGKtik ekimen parte-hartzaileak hedatu dira (inkestak, galdetegiak) sare sozialen bidez, eta gazteek modu aktiboan parte hartu dute.





6

EUROPAKO ESPERIENTZIAK GAZTEEN PARTE HARTZEAREN ALORREAN

Parte-hartzea Europan

Urbact Europa osoko hirietako hiri-garapen integratu eta jasangarria sustatzea helburu duen Europako Lurralde Lankidetzako proiektua da. Lan honetan jaso dira, alde batetik, gazteen parte-hartzearen alorreko proiektu pilotuak; eta, bestetik, **Urbact** programaren baitan parte-hartzearekin zerikusia duten eta sarituak izan diren esperientzia batzuk.

6.1 “Neu alkatea izango banintz”: Colle di Val d’Elsa-ko (Italia) gazte-aurrekontu parte-hartzailea



? Helburua

Colle di Val d’Elsan gazteei zuzenduta egindako lehenengo aurrekontu parte-hartzailea 2009ko azaroan hasi zen. Udal administrazioak proposatuta, proiektuaren helburua zen gazteriaren parte-hartzea sustatzea herriaren etorkizun sozilean, aurrekontuaren zati bat (20.000 euro) gazte-jardueretara zuzenduz.

⚙ Metodologia

Proiektuan parte hartuko zuten 59 pertsonak aukeratzeko, herriko 200 gazte biltzen zituen ausazko lagin bat erabili zen. Aukeratutako 59 pertsonen gain, proiektuan parte hartzeko interesa zuten 15 eta 25 urte bitarteko edozein gazte ere aukera zuen.

Proiektua hasi aurreko asteetan eta 2009ko azaroan egin zen lehen bileraren ostean informazio-kanpaina zabal bat egin zen gazteak parte-hartzera animatzeko. Informazio-kanpaina: Proiektua udalerriko webgunean argitaratu zen, informazio-orriak banatu ziren eta proiektuaren erakusketak egin ziren ikastetxeetan. Azkenik, proiektua modu formalean aurkeztu zen urte bereko azaroan egindako ekitaldi batean. Ekitaldi horretan bertan ere, parte hartzeko gonbidapenak banatu ziren.

Parte-hartzaileen taldea eratu zenean osoko bilerak eta azpitaldeen bilerak antolatu ziren. Esperientziak lau hila-bete iraun zuen. Denbora horretan, lau bilera ofizial eta parte-hartzaileek berek antolatutako beste saio batzuk egin ziren.

Saio guztiak 17:30etik aurrera egitea erabaki zen oraindik ere izena eman gabe zeuden eta bertaratzeko aukera zuten pertsonen presentzia bermatzeko.

Prozesua garatzean parte-hartzaileek adierazi zuten beharrezkoa zela alor horretan esperientzia zuten pertsonak kontuan izatea proposamenak burutzeko beharrezkoa zen informazioa eskuratzeko. Hala, tokiko komunitateko hainbat eragile inplikatu ziren (aipatzekoak dira, bereziki, garraio-sozietate baten gerentea, hiriko administrazioaren gerente bat eta kirol talde bateko gerentea), bizipenak eta ezagutza ekartzeko euren esperientzia profesional eta pertsonaletik.

Esperientzia horren ostean, erabaki zen proiektuak udalerriko teknikarien esku utzi behar zirela, udalak onar zitzakeen erabaki formal bihurtzeko.

✓ Emaitzak

Esperientziak eragin handia izan zuen gazte-jarduerak programatzeko metodoetan; izan ere, proiektuaren hasieratik gazteen eta tokiko administrazioaren arteko harremana hobetu zen, eta gazteriarik zuzendutako jardueren eskaintza nabarmen areagotu zen. Parte-hartzaileek proiektua ebaluatu zuten bi galdetegiren bidez: bata prozesuaren hasieran bete zuten; eta, bestea, amaieran. Emaitzek gogobetetasun maila handia erakutsi zuten.

Prozesuan adierazitako ideiak inplementatu egin ziren. Alde batetik “Centro Collaterale” bat sortu zen (autogestionatutako kultura- eta jolas-zentro bat, Herriko Etxearen barnean gazteriarik irekia); eta, bestetik, garraio publiko zerbitzu berri bat ezarri zen, ostiral eta larunbatetan 22:00etatik 03:00etara. Horrez gain, kirol jardueren esparruak hobetu ziren eta lurraldearen sustapen historiko eta artistikorako proiektu bat egin zen, gazteen enplegua sustatuz.

Gazteen eta administrazioaren arteko elkarreraginaren emaitza gisa, Gazteen Udal Kontseilua eratu zen, udalerriko gazteriarekin zerikusia zuten gaiei buruzko aholkularitza- eta proposatze-eginkizunak bete zitzaizkien. Gaur egun, kontseilu horrek martxan jarraitzen du, Arnolfo di Cambio bigarren hezkuntzako ikasleen artean aukeratutako 20 gazte osatzen dute.

Colle di Val d’Elsa-ko proiektua hobeto ezagutzeko gomendatzen da bertako udalaren [web orria](#) bisitatzea. Bertan informazio zehatzagoa topatu daiteke.

6.2 Poitou-Charentesko (Frantzia) bigarren hezkuntzako ikastetxearen lehenengo aurrekontu parte-hartzailea



? Helburua

Poitou-Charentes eskualdea Frantziako mendebaldean kokatzen da. 1.600.000 biztanle ditu, Frantzia mailan landa izaera nabarientetako bat duen eskualdea da. 2005ean, exekutiboak Europako eskualde mailako lehenengo aurrekontu parte-hartzaileetako bat inplementatu zuen. Gazte ugari parte hartu zuten ekimen hartan.

Aurrekontu parte-hartzaileak 93 ikastetxe publiko inplikatu zituen eta 2008az geroztik ikastetxe pribatuak ere bai. Eskola bakoitzeko ikasle, irakasle, guraso eta langile guztiei luzatu zitzaion eztabaidarako gonbita.

Aurrekontu parte-hartzaileak eztabaidatzeko foro horiek ikastetxeetan eragina zuten beste hainbat arazoez hitz egiteko eremu bilakatu ziren.

Esparru parte-hartzaile horiei esker, Poitou-Charentes-ko herritarrek eta gazteek zuzenean 10 milioi euroko partida bati buruz erabaki zuten.

⚙ Metodologia

Ikasturtearen hasieran (iraila eta urrian), eskualdeak gonbidapen bana bidali zien ikasle, guraso, irakasle eta langile guztiei, bigarren hezkuntzako ikastetxe bakoitzean urria eta abendu bitartean egingo ziren batzar orokortara joateko.

Hasierako bilera horretan, ordezkari politikoek eskualde-gobernuak bigarren hezkuntzako ikastetxeetan jokatzen duen rola azaldu zuten eta aurrekontu parte-hartzailearen jarraibideak eman zituzten. 10 edo 20

pertsonaz osatutako lantaldeak 45 minutuz bildu ziren, ikastetxeko eguneroko bizitza hobetzen lagunduko zuten ideia eta proiektuez pentsatzeko. Talde bakoitzean pertsona bat aukeratu zuten, taldean planteatutako proposamen guztiak osoko batzarraren aurrean aurkezteko.

Hurrengo asteetan, zerbitzu teknikoek proposamenak aztertu zituzten, eskualdeko jurisdikzioaren eremuan sartzen ziren eta teknikoki bideragarriak ziren ebaluatu zuten. Betekizunak betetzen zituzten kasuetan, proiektu bakoitzak izango zuen kostua aurreikusi zuten, 150.000 euroraino ezin iritsi zitekeela kontuan hartuta. Proposamenetan ez zen onartzen eraikinen eraikuntza edo birgaitze oso bat proposatzea, baina bai ikasleen eta ikastetxeko bizitza kulturala hobetzeko ekipamenduen erosketa edo espazioen egokitzapena. Proiektu handien kasuan, bilera bat antolatu zen ingeniari, gizarte-lan eta soziologiaren alorreko adituekin, proposamenak zehazteko. Urtariletik apirilera bitartean, bigarren saio baterako gonbita egin zitzaion eskola-komunitate osoari.

Bertaratutako pertsona guztiek aurreko bileraren dokumentu bana jaso zuten, gauzatzeko egokitzat jo ziren proiektuekin eta haien kostuarekin. Halaber, dosierak onartu gabe geratu ziren proiektuak eta horren arrazoiak jasotzen zituen. Dokumentuan planteatutakoari buruz eztabaidatu ondoren, proiektuak bozkatu ziren, lehentasunen arabera sailkatzeko xedez.

Bilera guztiak egin ondoren, Eskualdeko Kontseiluak, bere konpromisoa betetz, bigarren hezkuntzako ikastetxe bakoitzeko lehenengo proiektuen finantzaketa bozkatu zuen. Bozketaren emaitzak aurrekontu parte-hartzaileari buruzko webgune batean argitaratu ziren. Webgune horrek, gainera, beste informazio batzuk ere jartzen zituen eskura, hala nola parte hartzeko arauak edo gauzatu beharreko jardueren argazkiak.

Prozesu parte-hartzailea eta, beraz, prozesua bera eraginkorrak izan zitezen testuingurura eta uneko kontuetara moldatu behar zirela sinetsita, eskualdeak arreta handia eskaini zion prozesuaren ebaluazioari. Hau urtero ebaluatzen da txeki hirukoitz baten bidez.

Lehenik, ikertzaile independente batek txosten bat entregatzen die eskualdeko gobernatzaileei, urte bakoitzean alderdi desberdin bat jorratuz (aurrekontu parte-hartzailearen arkitektura orokorra, eztabaiden kalitatea, komunikazioa, eta abar). Bigarrenik, parte-hartzaileek galdetegi bat betetzen dute bigarren bileraren amaieran. Hirugarrenik, ikasturtearen amaieran, ebaluazio parte-hartzailearen eguna antolatzen da Eskualdeko Etxean.

✓ **Emaizak**

Parte-hartzea Frantzia sustatzeko forma tradizioaletan (auzo-kontseiluak, batzarrak...) ohikoa zen denbora eta esperientzia zituzten pertsonen gehiegizko ordezkaritza izatea. Gainera, zirkulu horietan gizon helduak nagusitu ohi ziren.

Emakume gazteak eta immigranteak, maiz, ez ziren ordezkatuta egoten prozesu horietan. Bada, Poitou-Charenteko aurrekontu parte-hartzailearen helburuetako bat alborapen soziologiko hori saihestea zen. Hori lortu egin zen hein batean, gazte, emakume eta immigranteen parte-hartzeak frogatzen duen bezala.

Proiektua bigarren hezkuntzako ikastetxe orokor eta teknologikoetan, lanbide heziketakoetan eta nekazaritza-ikastetxeetan eta arazoa sozialak zituzten pertsonentzako lau eskola berezitan ezarri zenez, aurrekontu parte-hartzailea pertsona guztiek parte hartzeko aukera paregabea bilakatu zen. Aurreneko aldiz, ikasleek, irakasleek eta pertsonal teknikoak aukera berdinak izan zituzten hitz egiteko eta entzunak izateko.

Administrazioaren ikuspegitik, aurrekontu parte-hartzaileak bigarren hezkuntzako ikastetxeetako lehentasunak zein ziren neurtzea ahalbidetu zuen. Horrez gain, prozesuan egindako proposamenetan inspiratutako beste proiektu asko ere gauzatu ziren, hala nola: kultura-langile bat jartzea eskola bakoitzean, kultura-programak eta ekitaldiak, edo eskola uztearen kontrako ekintza prebentiboak.

Proiektuaz gehiago jakiteko, Hiri eta Herri Gobernu Batuen (CGLU) **Giza Eskubide, Demokrazia Parte-hartzaile eta Inklusio Sozialerako Komisioaren webgunea** bisitatzea gomendatzen da.

6.3 Rigako GKE Etxea, hiriko gizarte- eta gazte-erakundearen arteko lankidetzarako espazioa (Letonia)



2010ean, Rigako herritarren foroak komunikazio-arazoak identifikatu zituen gizarte-erakundearen eta tokiko administrazioaren artean. Arazo horiez gain, Rigako herritarren parte-hartzea hiriko erakunde eta espazioetan jaisten ari zela ikusirik, herritarren foroa administrazioari proposamen bat egiteko beharrean ikusi zen. Forotik beharrezkotzat jo zen lankidetzarako espazio komun bat sortzea.

⚙ **Metodología**

Arazo horien eraginez, eta foroaren eta gobernu kanpoko erakundearen desioak kontuan hartuta, Rigako Udalak GKE Etxea ireki zuen 2013ko irailean. Espazioa erreformatutako eskola bat zen, bertan elkarrekin hiriarentzako lankidetzara iraunkorra garatzeko; horrez gain, hezkuntza-sostengua eta sostengu teknikoa, administratiboa eta informatiboa lortu zezaketen eta askotariko ekitaldiak eta jarduerak antolatu. Horren bidez inplementatu zen Riga City Society-ren Integrazio Programa 2012-2017 aldirako. Beraren bidez, laguntza ematen zitzaion GKEei eta gizarte-erakundeei herritarren parte-hartzea eta kontzientziazioa sustatzeko, tokiko gaien eremuan.

✓ **Emaizak**

GKE Etxeak ahotsa eman zien Rigan bizi ziren pertsonen. Gaur egun, gizarte zibileko ordezkariak jarraitzen dute parte hartzen ekitaldi kultural edo sozialen kudeaketa eta antolaketan, parte-hartzea sustatzeko xedez. Leku honek gazteei euren ingurune hurbilean parte hartzea ahalbidetzen die, gazteen, erakundearen eta tokiko administrazioaren arteko elkarlarragina lortuz.

Erakundeek beraiek kudeatutako espazio bat denez, GKE Etxeak administrazioak antolatzen dituen eztabaida edo ekitaldietara joaten ez diren pertsonen parte-hartzea ahalbidetzen du, lankidetzaren eta lekuaren berezko aniztasuna balio erantsia den espazio batean.

Rigako GKE Etxearen inguruan gehiago jakin nahi izan ezker, gomendatzen da [udalaren webgunea](#) bisitatzea. Bertan informazio zehatzagoa topatu daiteke.

6.4 “Kultura bitarteko gisa”: hutsik dauden eraikinak eta kultura bitarteko gisa erabiltzea Aarhusko (Danimarka) gazteen parte-hartzea sustatzeko



? Helburua

Proiektu honen helburua gazteak hutsik dauden eraikinen birmoldaketan integratzea zen eta, horren bidez, haien parte-hartze eta proiektzio kulturala sustatzea.

Beste kasu batzuetan ez bezala, proiektu honen asmoa ez zen parte-hartzerako espazio egonkor bat birmoldatzea eta sortzea, helburua ez baitzen espazioa, prozesua baizik.

Hau da, metodoa gazteak espazioak berriztatze eta jarduera kulturalak sortzeko prozesuetan sartzea zen, horren bidez arazo jakin batzuk –hala nola gazte kalteberen inklusioa eta gazteen langabezia– konpontzea xedetzat duen komunitate bat sortzeko.

⚙ Metodología

Aarhus-ko Hiria 2013 urteaz geroztik egon zen probatzen metodo hori. Honen bitartez gazteriaren parte-hartzea sustatzeko forma aurkitu zuen udalak.

Tarte baterako eraikin huts bat berraktibatu zen gazteentzako zentro komunitario bezala eta bertan parte hartzeko eta espazioaren konfigurazio fisikoaz eta edukiaz zeukaten iritzia emateko aukera zuten. Akordioa gazteen eta zentroan lan egiten zuten udal langileen arteko lankidetzaren estuan garatu beharko zela zen.

Estrategiaren ardatza zen espazio bat arazo bati lotzea; adibidez: parte-hartzea eta garapen soziala,

gazteentzako zentro komunitarioaren kasuan. Jarduera kulturala gehitzen zen gazteak erakartzeko eta modu berean azken hauek sorkuntza-prozesu batera atxikitzeko.

Metodoaren oinarria parte-hartzea estrategia integratutzat hartzea zen. Sorkuntza bateratuaren bitartez gazteen eta udalerriaren artean elkarrenganako konfiantza, komunitateari 'geu' zentzia eman ziona eraiki zen. Espazio horrek funtsezko balioak eraikitzen zituen, hala nola konfiantza eta errespetua, eta hori lagungarria zen hirian garapen sozial iraunkorra sortzeko.

✓ Emaitzak

Metodoa arrakastaz aplikatu zen "Youth Community Centre" deritzanaren eraikuntzan. Bertan, 15 eta 25 urte bitarteko gazteek kudeaketa-talde bat eratu zuten eta bilera publikoak egiten zituzten hilero.

Gazte-enplegarritasuna eta berdintasuna moduko gaiak jorratzeko eztabaidetan eta dinamika desberdinen gazteriaren parte-hartzea hazi egin zen esperientzia honi esker.

Aarhus-ko proiektuaz gehiago jakin nahiz gero, proiektu honen beroan sorturiko **Ungdomskulturhuset-UKH** gazteentzako espazioaren webgunea bisitatzea gomendatzen da.

6.5 Valongo hiriko Giza Liburutegia (Portugal)



? Helburua

Giza Liburutegia jarduera informal bat da, Valongo (Portugal) hirian ezarri zena 14 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat "Ez epaitu liburu bat bere azalarengatik" lemapean. Antolatzaileek lehenengo Giza Liburutegia hartu zuten adibidetzat, hau da, Danimarkako Roskilde Jaialdian 2000. urtean egindakoa, eta eskola-publikoarentzat egokitu zuten. Giza Liburutegiak liburuen ordez emakume eta gizonen historiak 'irakurtzeko' espazioak dira. Jarduera honek elkarriketa informal eta eraikitzailea ahalbidetzen zuen ikasleen eta 'Giza Liburuen' artean –hauek boluntarioak ziren, normalean aurreiritzi eta estereotipoen biktimak–.

Halaber, Giza Liburutegiak normalean elkar loturarik izaten ez zuten taldeen artean pertsona arteko harreman bat sortzeko aukera eskaini zuen. Parte-hartzaileei euren estereotipo eta aurreiritziei desafio egitea ahalbidetzen die, denbora-tarte mugatu batez, ingurune egituratu eta babestu batean.

⚙ Metodologia

Espazio fisikoa liburutegi normal bat bezala atontzen zen. Proiektuak izaera ibiltaria zuen, Valongo hainbat eskola bisitatzeko formulatuta baitzegoen. Jarduera gauzatu baino lehen, bilera bat egin zen irakasleekin egin beharreko urratsak zein ziren azaltzeko. Bilera horretan, jarduera prestatzeko klase bakoitzean eman beharreko urratsak azaltzen ziren.

Horren ostean, irakasle bakoitzak Giza Liburutegiaren helburuak eztabaidatu zituen bere ikasle taldearekin, eta galdera batzuk prestatu zituen aldeztasunetik. Horrek

segurtatzen zuen gazte parte-hartzaileak ez zirela blokeatuko 'Giza Liburuekin' elkarerraginean aritzean.

Aldi berean, elkarte eta GKEekin harremanetan jarri zien. GKE horiek estereotipo bat islatzen zuten 'Giza Liburuak' identifikatu zituzten. 'Giza Liburuek' ibilbide bat eginda zuten gaia jorratzen, eta prestakuntza tekniko eta zientifikoa euren figurari zegozkion estereotipoek desafio egin ahal izateko.

Udallerriak 'Giza Liburuak' trebatu zituen eta zailtasun eta arazoei aurre hartzeko prestatu zituen; halaber, dinamikak planteatzen zizkien desafioei nola aurre egin behar zieten erakutsi zien. Jarduera garatu zen egunean, hainbat 'Giza Liburu' zeuden eskuragarri. 'Liburuzain' bat zegoen, eta honek lau azpitalde eratu zituen klase bakoitzean, jarraibide batzuk eman zituen eta jarduera ebaluatzeaz arduratu zen.

Talde bakoitzak 'Giza Liburu' batekin hitz egin zuen, gutxi gorabehera 20 minutuz. Denbora-tarte hori bukatu zenean, taldeek 'Giza Liburuak' trukatu zituzten. Prozesu horrek talde guztiak liburu guztiekin kontaktuan jarri arte jarraitu zuen.

✓ **Emaitzak**

Giza Liburutegiak ahalbidetzen du giro seguru bat sortzea parte-hartzaileek elkarri zeta ireki batean parte hartu dezaten; horren helburu esplizitua beste edozein testuingurutan 'delikatuegitzat' hartzen diren gaiak jorratzea delarik. Sortzen den giroa oso pertsonala da, eta hori oso lagungarria da ikasleen parte-hartzerako. Truke horretan parte hartzeak lotura sendoak sortzen ditu, eta horrekin gaiaren inguruan parte-hartzaileek duten inplikazioa areagotzea lortzen da.

Eskola-komunitateek uste dute Giza Liburutegia dela eskoletan inplementatutako jarduera interesgarrienetako bat, ikasleen arteko elkarri zeta eta parte-hartzea sustatzeari dagokionez.

2010ean sei eskolak parte hartu zuten, eta 2011-2016 bitartean zortzik. 10 boluntario baino gehiago aritu ziren

Giza Liburutegien edizio bakoitzean, eta 4.200 gaztek baino gehiagok parte hartu dute proiektuan. Ordura arte existitzen ez ziren sareak eratu dira ikasleen artean.

Valongo-ko proiektuaz gehiago jakiteko bertako **udalaren webgunea** bisitatzea gomendatzen da. Bertan proiektuaren inguruko informazio zehatzagoa bilatu ditekete.

BIBLIOGRAFIA

Europako Komunitateen Batzordea (2001). *Bultzada Berri bat Europako gazteentzat*. Brusela.

Varela, E., García, F., Stoker, G., Herbert, H. eta Romero, H. (2006). *La participación ciudadana en grandes ciudades*. Madril: Dykinson.

Bilbao, M. eta Trabada, E. (2011). *Herritarren parte-hartzeari eta Europar Batasunari buruzko EAEko gazteen iritzia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Bilbao, M., Corcuera, M., Longo, N. eta Gonzalez F. (2015). *Gazteak eta Parte-hartze Soziala Euskadin*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Comas, D. (2009). *Los presupuestos participativos y las políticas de juventud: Un estudio de caso sobre la cultura de la participación en España*. Madril: Injuve.

Eudel (2009). *Nola egin kalitatezko partaidetza prozesua?*. Bilbo

WEBGUNE INTERESGARRIAK:

- www.vigiathinking.com
- www.humanlibrary.org
- <https://beersandpolitics.com/>
- <https://urbact.eu/>
- www.comune.colle-di-val-d-elsa.si.it/
- <https://www.uclg-cisd.org/es>
- <http://www.ungdomskulturhuset.dk/>
- <https://www.cm-valongo.pt/>

